

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua lehenik eta behin hasteko eta ondoren aurrera eramateko, ezinbestekoak izango ditugu funtsezko baliabide batzuk. Giza baliabideak, fisikoak, intelektualak edota finantza-baliabideak izan daitezke, baina guztiak garrantzitsuak edozein proiektu ekintzailetarako. Baliabide hauek erabilia, balio proposamena garatuko dugu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta azkenik diru sarrerak lortu ahal izango ditugu.

Baliabide fisikoei dagokienez, lehenik eta behin lana egiteko tokiren bat beharko dugu. Hau haisieran ez da oso handia izan beharko baina enpresaren garapena eta arrakastaren arabera aurrerago erabakiko dugu lokala handitu edota dagoenetan uztea. Beste alde batetik ekipo informatibo profesional bat beharko dugu eta horretarako kanpoko pertsonak edukiko ditugu gure enpresako langile batekin batera lanean. Honekin batera ordenagailuak eta mugikorrak beharko ditugu egunerokotasunean erabiltzeko eta marketing-a egiteko, besteak beste. Azkenik, gure produktuak sortzeko materialak beharko ditugu. Batzuk enpresen arteko erkarlanen bitartez lortuko ditugu baina beste batzuk guk erosi beharko ditugu (gastuak suposatuz), adibidez: birziklatzeko plastiko gogorra, sentsoareak... Honekin batera, lokalerako ura, argia eta gasa beharko dugu, eta baita leku batetik bestera mugitzeko garraio bide bat ere. Banketa sarea ere hemen kokatuko da. Denda fisikoan eta online erosteko ahalmena izango dute erosleek eta beraz biak garatuko ditugu.



Baliabide intelektualen barruan, markak, jabego ezagutza, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak egongo lirarteke. Guk gure produktua salduko dugu baina beste marka batzuekin lan egingo dugu baita. Gure denda eta webgunean saltzeaz gain beste denda edota farmazia handiagotan ere salduko ditugu, eta honetarako elkarten arteko harremanak sortuko ditugu.

Enpresa edo erakunde batean lan egiten duten osatzen dituzte giza baliabideak. Hemen, oso garrantzitsuak dira sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala. Gure enpresa hau hasieran behintzet lau lagunen artean osatuko dugu eta bertan bakoitzaren doai eta gustuak kontutan izango ditugu lanak banatzerakoan enpresa ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Lantaldearen sormena erabiliko dugu diseinurako eta produktua bera sortzeko. Beste alde batetik, horrelako kontuetan oso trebea den lankidea, alde informatikoan egongo da eta produktuaren gauza teknikoetaz arduratuko da, beste talde profesional batekin. Beste lankide batek dauzkan antolaketarako abileziak erabiliko ditugu dena gainbegiratzeko eta sartzen eta irtetzen direnak kontrolatzeko, non kontabilitatea eta finantziarioak kontrolatu beharko diren. Azkenik, profesional baten marketing eta publizitaterako talentua aprobetxatuko dugu hori guztia egiteko, enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoa da eta.

Azkenik, finantza-baliabideak ditugu. Hasieran ez dira soldatak egongo baina hala ere, materiak guztiak erosteko, alokairua ordaintzeko, ura, argia, gara eta beste hainbat gauza ordaintzeko dirua beharko dugu. Horregatik, kreditu bat eskatzea erabaki dugu, baina ez indibidualki, baizik eta enpresa moduan. Honetaz gain, agian bakoitzak bere aurrizkietatik ere zerbait jarri beharko du. Hainbat elkarterekin harremanak sortu ditugun arren gauza asko daude ordaintzeko eta hasiera ez da batere erreza izango guretzat.

